

JUSTIFIKAZIO TXOSTENA

a) Txosten-proposamena.

Nafar gizartea murgildurik dago gertatzen ari diren aldaketei egokitzeko prozesu batean; izan ere, merkatuen globalizazioak, informazioaren gizartearen etengabeko aurrerapenak eta lanbide kualifikazioko eskakizun handiagoek markatutako panorama berri baten aurrean gaude.

Testuinguru honetan, Europar Batasunak enplegurako proposatzen dituen estrategia koordinatuek ahalegin berezia egiten dute mugitzeko eta askatasunez zirkulatzeko gai den biztanleria aktibo kualifikatua lortzeko. Azken horren garrantzia berariaz azpimarratzen da Europar Batasunaren Tratatuan.

Horrenbestez, beharrezkoa da Lanbide Heziketaren araudi esparrua berritzea, une oro bermatzearen lanbide kualifikazioen eta lan merkatuko beharren arteko lotura egokia.

Foru dekreturako proiektu honek, zeinaren bitartez Nafarroako Foru Komunitatean Erdi Mendiko kirol-teknikari tituluaren curriculuma ezartzen den, gizarte- eta araudi-esparru berri honi erantzun nahi dio eta, hain zuzen ere, Nafarroako ikasleen eta merkatuaren beharrei egokitutako curriculuma diseinatuz gauzatu du asmo hori; horretarako, arreta berezia ematen die honako alderdi hauekin lotutako gaitasun pertsonal eta sozialei: talde lana, erabakiak hartzeko eta lanak gauzatzeko autonomia eta ekimena, eta jendaurreko arreta.

b) Entzunaldia eta parte-hartzea.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 21. artikuluan adierazten du ezen Nafarroako Administrazio Publikoek, beren eskumen eta eginkizunen esparruan, honakoak emanen dituztela argitara:

- Kontsulta publikoak, foru legeen aurreproiektuak eta erregelamenduen proiektuak egin aurretik planteatutakoak.
- Prestatzen ari diren araugintzako prozedurak, tramitazioaren zein unetan dauden adierazita.
- Araugintzaren ondorioak jasotzen dituzten memoriak, araugintzako proiektu edo aurreproiektuen tramitazioa justifikatzen duten agiriak, txostenak eta xedapenen testuak; gainera, jendaurreko prozedurak, herritarren parte-hartzeak eta interes taldeen esku-hartzeak sortutako agirien zerrenda eta balorazioa (aurkeztutako alegazioak eta ekarpenak barne, nork aurkeztu zituen eta erregistro datak adierazita).
- Herritarren parte-hartzearen emaitza, iritzia emateko aurkeztu zaizkien prozesu guztietan.

Agindu hori betez, proposatzen den foru dekreturako proiektua ondoko webgunean argitaratu da:

<http://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion>

Proposatzen den foru dekretua jendaurrean izanen da hamabost egunez. Alegazioetarako gaitu diren bideak behar bezala iragarriko dira aipaturiko webgunean, eta herritarrek beren ohar eta iritzia emateko aukera izanen dute.

Jendaurreko aldian jasotako alegazioak aintzat hartuko dira erabakiak hartzeko orduan. Behin herritarrek adierazitako oharrak eta iritziak aztertu ondoren, hartutako erabakien berri emanen da eta jakinaraziko da jasotako iradokizun eta gomendioak onartu diren edo zergatik baztertu diren, Nafarroako Gobernuaren Interneteko Atarian argitaratuko den azken txosten baten bidez.

Gainera, proposaturiko foru dekretua Nafarroako Eskola Kontseiluaren txostenaren mende geldituko da. Organo horretan ordezkaturik daude herritarrek, hezkuntzaren esparruan garrantzi handiena duten kolektiboetako erakundeek, entitateek eta elkarteek bidez.

Halaber, Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluaren aurrean aurkeztuko da, Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseilua sortzen duen uztailaren 3ko 247/2000 Foru Dekretuko 2.e) artikuluan ezarritakoa betez. Artikulu horren arabera, aipaturiko erakundeari dagokio, besteak beste, lanbide heziketa arautuko titulazioetako curriculumen diseinuari buruzko txostenak egitea, Nafarroako Foru Komunitateko eskumenen esparruan, eta lanbide heziketaren maila eta espezializazioei dagozkien titulazio berriak proposatzea.

Lanbide Kualifikazio, Enpresa eta Enplegurako Zerbitzuko zuzendaria

Francisco Javier Martínez Cía